

BALEIKE

100 pta.

48. zenb.



● Jon Ander Garzia, artista zumaiarra, saritua

● Bariantea, bost urtetara amaitzea espero da

● Uxua Gainza, Telmo Deun-eko prestatzaile fisiko berria

● Udalekuak, harremanetarako aukera paregabea

IV. Baleike komiki lehiaketa



BALEIKE

Baleike Zumaiaiko herri aldizkariaren laugarren urteurrenaren aitzakiarekin, komiki lehiaketa honen edizio berri bat antolatu dugu. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiaarrak tentatu nahi ditugu lan pixka bat egitera. Anima zaitzete parte hartzera!

- 1.-** Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
- 2.-** **Pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak** izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
- 3.-** Marrazkiak **txuri-beltzean** eginak izango dira, eta luma, errotuladore, pintzel edota boligrafoz egin ahal izango dira.
- 4.-** Lanak **bakarka edota talde lanean** egindakoak aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, euskarazko lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa da gurea.
- 5.-** Lanak 1998ko uztailaren **24a** baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

FORONDA KULTUR ETXEA 20750 ZUMAIÀ

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean "ZUMAIÀKO IV. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA" eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez sobreetan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

- 6.-** Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuan emango dute aditzera beren erabakia.
- 7.-** Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitaterik ez balute, sariak eman gabe gera litezke. Bestalde originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzen.
- 8.** Honako sari hauek ezarri dira:

1. saria	25.000 pta
2. saria	15.000 pta
Zumaia onenarentzat	15.000 pta

- 9.-** Saritutako lanak Baleikeren jabegopean geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.
- 10.-** Saritu gabeko lanak Forondan egongo dira lehiakideen esku, epala eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikeren jabegopean geratuko dira.
- 11.** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzazko kasuak antolatzaileen iritzira argituko dira.

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxes: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Amaia Benito
Eneko Dorronsoro
Josu Waliño
Inaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martínez
Joseba Ossa
Juan Luis Romatet

Igor Uranga

Josua Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor, Josu
eta Arantxa, Igoné eta
Nerea, Rikardo
Zengotita, Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Manu Uranga

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,
Xabier Azkue

Banaketa

Eneko Dorronsoro
Ainara eta konpainia

Publizitatea

Inaki Zubimendi
(943 143226)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Ezkerrik asko Coppola jauna



Juan Luis Romatet

Sanpedrotako asteburuan festa giroa alde batera utzi, eta Aita Mari zinean sartu nintzen Francis Ford Coppolaren azken filmea ikustera. Igande gauean 7-8 pertsona egongo ginen "Legitima defensa" filmea ikusten, eta ez dakit beste ikusleek zer iritzi izango duten, baina ni behintzat ez nintzen defraudaturik atera. Enkargoko filme bat izateko, ez dago batere gaizki, aktoreen antzezlan bikain batekin gozatzeko aukera dugu behintzat. Noski, ez da maisu-lan bat, baina "klasea" duen filme bat bai. Gainera orain arte ez nuen Coppolaren filme bat pantaila haundian, zinean ikusi, beti ere telebistako pantailatxoan ikusi beharra izan dut. Aita Marira hurreratzeko beste arrazoi bat izan daiteke, nahiz eta nahiko tontoa izan.

Ezagutzen nauen jendeak badaki zineaz txora-txora eginda nagoela, eta Coppola jaunaren errua da puska haundi batean. Bera izan zen, Martin Scorsese, Woody Allen eta beste hainbatekin batera zinearen magia nigan sartu zuena. Corleone-tarren tragedia, Wagner-en musikaz lagundurik Vietnam-eko herrixka bonbardeatzen dituzten helikopteroak, koloretako arrain burrukalariak, Transilvaniako konte odol-zurupatzailea... beti ere buruan bueltaka ditudan imaginak dira. "El padrino", "Apocalypse now", "Rumble fish", "Dracula"... behin eta berriz ikusteko gogoia ematen didaten pelikulak. Filme hauek dira, beste ehundakarekin batera, zinea arte bihurtzen dutenak. Hori dela eta, Coppola jauna, mila esker.


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 02 50	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



Bizikleta-martxa

Kaixo Baleike:

Eskutitz honen bidez uztailaren 18an, larunbata, egingo den bizikleta-martxaren berri eman nahi dizuegu. Bizikleta-martxa hau gazteok ditugun bizi baldintza kaxkarrak salatzen izango da: dugun langabezia tasa altua, etxebizitzak eskuratzeko ditugun zailtasunak, lan-baldintza kaxkarrak, esplotazioa...

Bizikleta martxa Zumaian hasiko da goizeko 9.30ak aldera. Bizikleta gainean jarri aurretik, hasiera ekitaldi bat burutuko da, bertsolariak izango ditugularik. Hauen ostean, bizikletak hartu eta herriari buelta txiki bat eman eta gero, Getaria aldera joko dugu, ondoren Zarautza iristeko.

Zarauzko hondartza prentsaurreko bat emango da gaiari buruzko azalpenak emateko. Prentsaurrekoa bukatzearekin batera, Oriorantz abiatuko gara. Orion, ekitaldi ezberdinez gain, bazkaria izango dugu (bazkaltzera doazenek aurrez izena eman beharko dute Inpernupe tabernan). Guztiok animatzen zaituztegu martxa honetan parte hartzera.

ZUMAIKO JARRAI

Mutilak behar dira

Kaixo Zumaiaarrok:

Eskutitz hau "Beti Gazte" taldeko dantzariak idazten dizuegu. Urtearen ondorioz "Beti Gazte" dantza taldean mutilak behar ditugu.

Horrenbeste denbora ondoren, mutilak desagertu egin dira. Mesedez eskatzen dizuegu, apunta zaitezte. Informazio gehiago nahi bazenute, ostiralean, gaueko 7.15etan azaldu zaitezte Zumea eskolara.

OHARRA: Mutilak behar dira, gutxi gorabehera 6 urtetik gorakoak. Ez da ezer ordaidu behar eta gainera edozein herrietara dantza egitera joaten gara eta oso ongi pasatzen dugu. (Herrietara joateko ez da ordaindu behar).

MESEDEZ APUNTATU!

Benetan eskertuko genuke zuen borondatea, eta izugarri poztuko ginatke mutil berriak inguratuko balira.

BETI GAZTE DANTZA TALDEA

ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



Zerbitzu Ofiziala
ZUMAI MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



Erribera kalea, 2
Tel. 861125



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430



ALBAITARITZA
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behe
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdia
- 24 ordu
- zure etxean



Unai Gijarro

Stop militar

*Aizak hi, gazte mainontzi
Jeneralari goraintzi
ez al hakien ez etortzeko
etzela lizentzi
ideia txar hoiek utzi
bestela kartzelan hautsi
soldadu gisa gizon egiten
ezin erakutsi*

*Nik badet gizalegia
soldauak baino hobia
beste gauz txarrik etzait arkitzen
menpeko pobria
armik gabeko noblia
zentzua paregabia
errugabeak kartzelan zartzen
abilidadia
modu honetan luzitzen zaigu
militar jendia*

Familia eta euskara

Edozein hizkuntza iraunarazteko modurik berezkoena edo naturalena familia bidezko transmisioa da; familia da hizkuntza transmititzeko biderik errazena eta eraginkorrena. Gainera, famili hizkuntza afektibitatearen eta norberak barneratzen duen mundu sinbolikoaren hizkuntza da. Familiaren ikasi dutenak izaten dira gehienetan euskara gehien ezagutu eta erabiltzen dutenak. Familiaren hizkuntza sentimenduak, poza, tristura e.a. adierazteko hizkuntza da.

Aipatutako hau edozein hizkuntzari aplika badakioke ere are nabariago gertatzen da hizkuntza gutxiagotuen kasuan, hizkuntza bizirik iraunarazteko modurik garrantzitsuena edota bakarra izan ohi baita. Honen adierazle garbia 1930etik 1950era neurri batean euskararekin gertatutakoa da. Urte hauetan inguru guztia aurkakoa izanik eta jazan zituen erasoak jasan arren familia izan zen euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea lortu zuen baliabide bakarra.

Haur baten, (0-13 urte) errealtatea hiru esparru nagusitan hezurmamitzen dela ikusiko dugu: familia, eskola eta bi haueetatik geratzen den errealtatea (kalea, jolas-lekua, eskolaz kanpoko iharduerak, telebista e.a.).

0 eta 3 urte bitarteko haurren errealtatea familiak osatzen du ia erabat. Geroago eskola, eskolaz kanpoko zenbait ekintza, lagunak eta abarrek errealtate hori zabaltzen dute.

Familiaren laguntzarik gabe hizkuntza transmititzeko gainerako eragileek —eskola, komunikabideak, eta administrazioa besteak beste— beti hutsetik abiatu beharko lukete, eta ahalegin handia egin ondoren, izandako emaitzak ez lirateke hain onak izango.

Gaur egun belaunaldi berrien euskalduntzearen pisua eskolarengan delegatu da oro har. Irakaskuntzaren zeregin nagusienetakoa haurrari euskara irakastea da, baina hau lortzen bada ere, eskolari ezin zaio eskatu gazteek euskara barneratu eta erabil dezaten.

Erabilera beste gune batzuetan erabakitzen da: familia, lagunartea, auzoa. Beraz, hizkuntza bat sendotzeko eskolan egindako lana osatu eta indartu egin behar da eskolaz kanpoko ekintza eta iharduerekin. Iharduera hauek eta denbora libreak garrantzi handiko lekua dute haur eta gazteen bizitzan. Garrantzi handiko bi arrazoi-rengatik; batetik, neska-mutiek denbora asko ematen dutelako aisialdiko ihardueretan; eta bestetik, aktibitate horiek asko gustatzen zaizkielako. Eskola gehiago edo gutxiago esfortzua da, beharra; aisialdia aldiz, plazerra, atsegina.

Eskolan egindako euskalduntze lan honen ondorioz euskaraz dakiten gazteen kopurua gurasoena baino handiagoa da, eta hau pozgarria da. Baina horrela izanik ere, eta familiak ari garela ahaztu gabe, anai-arreben artean eta famili artean ez da erabilera igo eta beheranzko bidea ere somatu somatu da eta hau benetan kezagarria da, euskarak mendeetan zehar familiari esker iraun izan duela kontuan izanik. Eta gaur egungo euskal familietan erderaz aritzeko ohitura erroto egiten bada, orain arte bizirauteko izan dugun baliabide garrantzitsuena galduko dugu. Gure seme-alabak euskarazko ereduari matrikulatzea oso garrantzitsua da, baina honekin ez dago dena eginda, honek segida koherentea eskatzen du. Euskararen etorkizuna ez da gure seme-alaben eginbidea bakarrik, gure partaidetza aktiboa ere eskatzen du.



Marije Golmaio

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe

*Gizonezkoen
erropak*



Zumbillo, 4 Tel. 861407

"Zumaia inguruko ibilbideak" deituriko gida kaleratu da

Herriko eta inguruko hainbat ibilaldi aurki ditzakegu bertan



Orain dela aste batzutatik Zumaia Inguruko Ibilbideak deituriko gida kaleratu da. Zumaia Udalak argitaratutako gida honetan, dozena erdi ibilbide ezberdin aurki dezakegu, batzuk ezagunak eta beste batzuk ez hainbeste. Guztiek, abiapuntu berbera dute, Arbustaingo arranja hain zuzen ere. Berekin batera, ibilbide horien mapa bat ere eskura daiteke.

Gida honen aurkezpen ofiziala, uztailaren 4an izan zen. Goizeko 11etan, Arbustaingo arranja inguruan, zumaia talde zabala bildu zen eta gida bana banatu ondoren, bertan proposatzen den lehenengo ibilbidea egiteari ekin zitzaion.

Zumaia-irten, Beduara iritsi eta hemendik Artadi aldera jo zuten. Puntu honetan, ibilbidea egitera joandako guztiei hamaiketako bat eman eta ondoren berriro Zumaia bueltatu ziren guztiak lehen irteera honi amaiera emanaz.

Gida, Rafa del Pilar eta Jabier Odriozolak egin dute. Diseinua eta maketazioaz Roberto Gutierrez arduratu da eta argazkiak Javier Carballo eta I. Llaborirenak dira. Guztia koordinatzen, Joseba Ossa aritu da.

Aurkezpen ofizialean egindako lehen ibilbide horretaz gain, beste honako irteera hauek proposatzen dira:

batetik muga zaharretan zehar deiturikoa. Ibilbide honetan, Arritokietatik pasa eta Andika aldera doan bidea hartzen da; San Martin baserrira jeitsi, Sarrondo Beheko baserria atzean utzi eta Jadarre auzotik igaro ostean, Eusebio Gurrutxaga helduko gara.

Herria eta bere ingurunea hobeto ezagutzeko aproposa da gida hau

Hirugarren ibilbidea, Zumaia-Askizu-Getaria eta berriro Zumaia artekoa da. Laugarrena berriz, Zumaia Bira ezaguna. Elorrixa aldera hartu, Urberu sagardotegia ezkerretan utzi, errepede nagusia zeharkatu eta poliki-poliki Hartzubi baserriraino joko dugu. Ibañarrietako Santa Kruz ermitatik pasa, Miraballes baserrira doan pista zementatua hartu eta Oikiarekin egingo dugu topo. Hemendik Artadira

jo eta bertatik Zumaia ur biltegira ailegatuko da. Errepide nagusiarekin lotura egin eta Arbustainen amaituko da laugarren irteera hau.

Bostgarren ibilbidea, Zumaian hasi, Garategainera joan, Meaga gainditu eta Indamendira iritsiko gara. Puntu horretatik, Alzolarasetik pasatu ondoren, Aizarnazabalera helduko da. Ibañarrietarako bidea hartu, San Lorentetik igaro eta berriro Zumaia iritsiko gara. Azken irteera berriz aski ezaguna da zumaia-irteeratzat, Sakoneta-Elorriaga eta Pikote baserriaren artekoa. Ibilbide honetan, itsasertzetik joanez gero, itsasoa beheara doanean egitea gomendatzen da, urak ez harra-patzeko.

Mapari dagokionez, ibilbide guztiak argi eta garbi deskribatuta azaltzen dira. Oso praktikoa da, poltsikorako egin eta bere egilea Daniel Carballo izan da. **IGOR URANGA**

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurrun, 1

Tel. 143224

Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAIA
Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45

Tel. 861485

Estazioa eta Alai auzategiaren artean etxebizitza berriak

Guztira 300 inguru eraikitzen ari da zonalde horretan

Azken urteotan Zumaian etxebizitza berri asko eraikitzen ari dira. Jadarre auzoan, Arrangoleta aldean, Alde Zaharrean, Gernikako Parke alboan eta baita estazioa eta Alai auzategiaren artean ere. Azken gune honetan, 300 etxebizitza inguru eraikitzen ari dira, sei bloketan banatuta egongo direnak.

Dagoeneko bloke guzti horietatik lau eginda daude, eta lehenengoan behintzat, urte hasieratik jendea

bizitzen jarria dago. Bostgarren blokea berehala hasiko dira eraikitzen eta ondoren, seigarrena eta azkenengoa etorriko da. Sei bloke horietatik lau etxebizitza libreak dira eta beste bi kooperatibak.

Etxebizitza guzti hauen inguruan beraz, bizitza edo mugimendu handia sortuko da. Urbanizazioari dagokionez ere, aparkaleku eta zona berde dexente izango ditu inguruan. Eraikiko diren aparkalekuekin, Alai


auzategian zentzu honetan aspalditik dagoen arazoa behin-betiko konpontzea espero da. Gune horretan, beti aparkaleku eskasia egon dela kexatu izan dira auzokideak.

Etxebizitza berri hauek, 3 bloketako bi lerrotan banatuta egongo dira (grafikoan ikus daiteke). Hauen artean, elkarlotuta, hiru plaza eraikiko dira, peatonalak izango direnak neurri handi batean. Zona peatonal honek 200 metroko luzera izango du gutxi gora behera eta 20 metroko zabalera. Lehen aldia izango da era honetako gune peatonal bat egongo dena herrian.

Bukatzeko, etxebizitza berri hauek Aita Mari poligonoarekin lotura zuzena izango du eta Ayra Durex aldearekin ere bai. Bloke guzti hauen eraikuntzarekin eta inguruan izango duen urbanizazioarekin, Zumaia bestelako itxura bat hartuko du.

IGOR URANGA

3. sektorearen urbanizazioko planoak



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067



Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441

balezulo
importaturiko erroa eta artisautza



Basadi, 3



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behe Tel. 861018

Musikoak kalera aterako dira aurtengo udan

Laboa, JC Perez eta
Ainhua Artetaren
kontzertuak izango
ditugu.

*Bigarren urtea dute Musika
Patronatukoek Nazioarteko
Musika Jaialdiaren antola-
kuntza beren gain hartu
zutenetik, eta aurtengoa,
XIV.a prestatzen ere makina
bat lan hartu dituzte.*

Ikastaroetarako zazpi maisu ekarri dituzte, sei ganbarakoak (bikotetik hasi eta orkestra osatzera iritsi gabe egin daitezkeen konbinazio guztiei deritzaie ganbarako musika) eta bat ahotsarena, eta hirurogeita bost ikasle datoz, gehienak Euskal Herrikoak, baina baita Italia, Belgika, Frantzia, Katalunia, Avila eta Kanariasetatik etorritakoak ere. Ikasle hauek Musika Patronatutik konserbatorioetara bidaltzen duten propagandaren bidez izaten dute Jaialdiaren berri. "Euskera eta erderaz ateratako liburuxkez gain italiera eta ingelesez ateratzen degu beste bat, eta Euskal Herriko eta Espainiako kontserbatorioez gain



Italia, Alemania, Frantzia eta Ingalaterrako kontserbatorio askotara ere bidaltzen ditugu liburuxka hauek" azaldu digu Mertxek. "Interneten ere sartuta daukagu Jaialdia" jarraitu du Tolok, "gaur eguerdian Kolonbiano batek deitu du Ingalaterratik, internetekoa ikusi duela eta informazio eske".

Ikasle hauek, uztailaren 31tik abuztuaren 12ra, ikastaro, entsaio eta kontzertuen artean egunean hamar ordu inguru emango dituzte musika jotzen. "Kriston trotea izaten dute, baina oso ambiente ona izaten degu, eta gustora ibiltzen dira. Batzuk herriarekin 'engantxatuta' gelditu izan dira, eta badago seigarren aldiz datorrenik ere". Ikasle bakoitza bere instrumentua irakasten duen maisuarekin aritzen da lehenengo (aurten bibolina, biolontxelo, pianoa, biola, klarineta eta oboea ekarri dituzte), eta gero maisuek 'laborategi' deritzaien taldeak osatuko dituzte instrumentu desberdinetako ikasleekin. Talde hauek jendaurrean joko dute, egitarauan programaturiko

kontzertu irekietan, eta maisuek eta zumaiko ikuslegoak emaniko sariak irabazteko aukera izango dute. Bakarka ere badago saririk, azkenengo egunean parrokia aurrean orkestra eta koruarekin emango den kontzertuan instrumentu bakoitzari dagozkion bakarlari lanak egitearen ohore eta gozamina izango dute maisuek aukeratzen dituztenek.

Egitaraua ateratzear dago oraindik, baina kontzerturik interesgarrien datak behintzat aurreratu dizkigute Mertxe eta Tolok: Abuztuaren 1ean, larunbata, Ainhua Arteta. 2an, igandea, JC Perez eta Arkadius String Quartet. 7an, ostirala, Mikel Laboa. 8an, larunbata, Piatzolari omenaldia, (tangoak errexitatu eta dantzatzeko dira). 10ean, astelehena, ikasleen taldeek emaniko kontzertuan ikusleek botua emateko aukera izango dute. 12an, azteazkena, itxiera jaialdia orkestra eta zumaiko koruarekin.

Patronatukoek kontzertuak kalera atera nahi dituzte. "Jun dan urtean Mari kalean orkestra txikiarekin egin

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3

Tel/Faxa: 143453

zen kontzertua zoragarria izan zan. Lenengo filan sei zazpi urteko ume ilada bat zegon, eta etzian ezta mugitu ere egin. Ikasleak ere kalean jotzeko gogoarekin egoten dira, eta ateratzeko moduko maila badutenez, aurten ahal diren kontzertu gehienak kalean egin nahi ditugu." dio Tolok. Honela, kontzertu garrantzitsuenak monjetan izango badira ere Mari kalean, estalapean, 'Goiko' aurrean eta parroki aurrean ere entzun ahal izango dira Mozart, Vivaldi eta konpainiaren piezak.

Musika kalera aterata herritarrek Jaialdia hobeto aprobetxatu dezaketela iruditzen zaie. "Herrian Jaialdiarekiko nolabaiteko urruntasun bat somatzen degu, eta pena bat da, batipat zumaiairek disfrutatzeko

antolatzen baitugu Jaialdia" komentatzen du Mertxek. "Ahal den neurrian zumaiairek inplikatzeko saiatzen gara" jarraitzen du, "itxiera jaialdiko orkestra esaterako zumaiko bandako jendearekin osatzen degu. Fefe eta Sesma egongo dira tronpetarekin, Mikel Emezabal eta Marixi Sesma klarinetea, perkusioan Juan Aizpurua, Joxe Mari oboearekin, Amaia Aldalurrek ere parte hartu izan du kontzertuetan pianoarekin... eta ikastaroetan ere parte hartuko dute zenbaitzuk". "Iaz kontzertuetara ze jende etortzen ote zen kontrolatzen jardun ginar pixkat, eta %90a zumaiairek zirela ikusi genuen, eta gainera horietatik oso gutxi zian udatiarrak. Beraz, ezin daiteke esan uda musikala kanpokoentzako edo turismoa bultzatzeko egiten dela.

Gainera herrikoek ere kanpokoek bezainbeste disfruta dezakete musikarekin" bukatu du Tolok.

Jaialdiak 12 miloitako aurrekontua du, horietatik erdiak udaletxea eta Gipuzkoako diputazioak jartzen dituzte, eta beste erdiak patrozinatzaile, ikasleen matrikula eta kontzertuetarako sarreretatik ateratzen dituzte.

Sarrera normalek 500 pzta. balio dute, Ainhoa Artetarenak 3.000 pzta, eta Mikel Laboarenak 1.500 pzta. Erosi nahi dituenak Musika Eskolara deitu behar du, 861183 zenbakira. Goizetan hamar t'erdietatik hamabi t'erdietara egoten dira, eta arratsaldetan sei t'erdietatik zortzietara.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Iñigo Egiguren eta Nerea Epelde aske utzi ditu epaileak

Iñigo Egiguren zumaia gaztea eta bere neska-laguna den Nerea Epelde aske utzi zituen epaileak joan den ekainaren 19an bi egun komisaldegian igaro ondoren. Bi gazte hauek polizia espainiarrak atxilotu zituen ekainaren 17an, beraien etxean goizaldeko ordu biak aldera sartu ondoren. Bi orduz etxea miatu ondoren, beraien semea senide batzuekin utzi eta bikotea Madrilera eramane zuten atxiloturik.

Bi egunez egon ziren inkomunikaturik bertan, eta beraiek esan dutenez denbora honetan mehatxu eta kolpe etengabeen bidez tratatu txar psikiko eta fisikoak jasan dituzte. Denbora hau igaro ondoren, epailearen aurretik pasa eta honek aske uzteko agindua eman zuen. Hala ere, epailearen aurrean agertzen jarraitu beharra daukate, Nereak astean behin eta Iñigok hilean behin.

Poliziak Donostia komandoaren kolaboratzaile izan zitezkeelakoan eramane zituen atxilotuta bi gazte hauek. Hala ere, esan bezala epaileak frogarik ikusi ez eta aske uzteko agindua eman zuen.

◀ **JOSU WALIÑO**

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

CORO PRIETO
Estelicista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazaratxo z/g

98rako trazatua, 99rako proiektua eta 2002rako bariantea.

Estazio aldeko sarrerak arazo asko sortu dizkie diseinatzaileei.

Bariantearen trazatua diseinatzearen ardura hartu duen Sestra enpresako zumaia bati, Josu Arrizabalagari joan gatzazkio informazio eske.



Azaldu digunez, bukatua dute traza-tuaren proiektua, eta Udalaren azken begiratua jaso ondoren, ziurrenik urrirako kaleratuko du Diputazioak agiri ofiziala.

Itsas kiroldegi ondotik estazio aldera sartu, trenbidea bilatu, eta honen ondotik (trenbidea ezkerrean duela) joango da bariantea, Txikiardi aldean karretera generalarekin lotu arte. Kilometro t'erdi inguruko luzera izango du.

Urtebete aritu omen dira lanean orain esku artean duten azken trazatuarekin asmatu arte. Arazorik handienak

estazio aldeko sarrerak eman dizkie, oso leku txikian, eta ahal den neurrian Alai auzategiari espaziorik jan gabe, ibilbide askoren irteera bilatu behar izan baitute (estaziorako oinezkoen bidea, estazioko industrialdearen sartu-irteerak, bariantea bera e.a.). Rotonda bat egin eta estazioa herriarekin zuzenean konektatzea izan dira azken irtenbidearen ardatzak.

Bariantea beharrezkoa zela dio Josuk, eta asmatu duten soluzioa asko landutakoa izan dela eta nahikoa konpletoa iruditzen zaiola.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Aurten ere bandera urdina Itzurunen.

Gipuzkoan bi bandera bakarrik eman dira, eta Bizkaian bost.



Hondartzaren ezaugarri fisikoak, garbitasuna, itsasoko uraren kalitatea, dutxa eta sokorristen instalazio eta zerbitzuak, eta argibide (banderen ingurukoak e.a.) eta seinalizazioa hartzen ditu kontuan Eusko Jaurlaritzako ingurugiro sailak bandera urdinak banatzerakoan.

Dutxak eta sokorristen instalazioak berri-berriak dira Itzurunen, hondarretako zikinkeriak jasotzen ere aritzen dira zenbaitzu azken hilabete hauetan, eta uren kalitatea mailarik altuenekoa da, 2 mailakoa.

Itzurunez gain Getxoko Aizkorri, Bermeoko Aritxatxu, Sopelako Atxabiribil eta Barinatxe, Ibarra-

geluko Laga, eta Getariako Malkorberi eman zaie bandera urdina.

Joan den urtetik hona bandera urdin gutxiago jarri da euskal kostan. Uraren kalitatearen neurketak egin zirenean uholdeak izan berri ziren Donostian, eta ura guztiz nahastuta aurkitu zuten, Ondarreta eta Kontxak galdu egin dute. Bizkaian ere Bakio eta Lekeitioko hondartzak banderarik gabe gelditu dira.

Aspaldi genekien Itzurun inguruko hondartzarik politena zela, baina ikusten denez Gipuzkoako garbiena ere bera dugu, ez baitugu oso garbi Getarian jarri duten bandera horren urdina ote den. ▶ **ANTXOKA AGIRRE**

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CANAL+

CANAL DIGITAL

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

Aurreko hilabetean, Kirol Portuko lanen lehen harria jartzearen ekintza sinbolikoa burutu zen.

Bertan, besteak beste, Rikardo Peña Zumaiaiko Alkatea eta Jose Antonio Maturana Lan eta Garraio Publikorano Sailburu ohia izan ziren.

Azken honen esanetan, "kirol portuak onura ekonomiko handiak emango dizkio bai Zumaia eta bai Gipuzkoari ere.



Hiruzpalau pabilioi berri Gorostiagan.

Urte honen amaierako, Wediver, Korta, Osetu eta Matiena enpresak beren pabilioiak amaituta egotea espero dute Gorostiagako poligono industrial berrian. Momentuz oraindik urbanizazioko lanetan dihardute. Honetaz gain, ur saneamenduko sae berritzailea ere ezarri da industrial gune hori eta estazioaren artean. Ur azpitik doazen hodi batzuk ezarri dira, 300 metro baino gehiagoko luzera dituztenak. Mariezkurrena enpresa nafarrak burutu ditu lanak eta guztira 85 milioi pezeta gastatu dira ur saneamenduko obra hauetan.

Barraren kontrako ekintza.

Zumaia Bizirik plataformako kideek barra berriaren kontrako ekintza protesta bat burutu zuten orain aste batzuk. Obra honen kartel informatzaile ofizialaren gainean, beste bat ezarri zuten Zumaia Bizirik barraren ilegaltasun kondizioa adierazten zuena.



Hilaren 15ean irekiko da Zumaia hotela.

Zumaia hotelak bere ateak irekiko ditu uztailaren 15ean. Gerora jatetxea eta taberna irekitzeko asmoa dute eraikin berean. Lehenengo bezeroak ere lortu ditu Danik. Nazioarteko XIV musika jaialdira datozen 65 ikasleek Zumaia hotelean egingo dute lo.



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea

TEL. 860201



ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu sailmenta
zerbitzu teknikoak
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Baltasar Etxabe z/g

Tel. 861175
Faxa: 860550



Txupinazoa, katxapero bat egoera txarrean zegoela et, susto handi xamarra hartu zuen batek baino gehiagok, gora joan beharrean, lurrean egin zuenean eztanda



Herri kiroletan Mieltxo Saralegik erakustaldi bikaina egin zuen. Belaunak doblatu, harria belaunera eta zaust! bizkarreraino eraman zituen pisu ezberdineko harritzarrak

Dultzaineroak festa guztietan zehar etengabe izan dira kalejiram, baina parrandak botatzen ere espezialistak direla azaldu dute



ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



orain beheko plazan!

Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 143395

expert 
ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etzezarreta, 6

Tel. 861078

Baina ez pentsa harrija-
sotzen bakarrik ibili zireni.
Aizkolariek ere beren lana
fin egin zuten.



Dultzaineroak jai guztietan izan
genituen, baina trikiti duoinuak ere
ixildu gabe aritu dira San Pedrotako
festak alaitzen



Nahikoa komeri izan zituen Anjel
"Goiko"-k tanborrada xuxen-xuxen
eramateko. Batek baino gehiagok
barruak ondo berotuta zituen...



Amertxe

Erribera kalea, 6

Tel./Faxa: 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Ion Ander eta Itziar Garzia: **“ Udaberriko abentura bat izan da, bukaera ezin hobearekin ”**

Uztailaren 3an eman ziren aditzera Zarauzko IV. Nazioarteko Zeramika Artistikoaren Lehiaketaren irabazleak. Sari nagusia, 850.000 pezetakoa, Leioan Arte Ederretako hirugarren ikasturtea amaitu berri duten Jon Ander Garzia Alberro zumaiarrak eta Itziar Garzia Aranburu donostiarrak irabazi zuten. Neurri eta dimentsio askotariko esferekin osatzen dute bi gazteen artean egindako lana, eta ‘Udaberriko sorkuntza’ jarri diote izenburutzat. Pozik daude, hiru hilabetetako lana eta beren ahorrillo guztiak inbertitu behar izan dituzte lan honetan, baina Ion Anderrek dioen bezala oso ondo amortizatutako inbertsioa izan da.



Jon Ander eta Itziar saria eskutan dutela beren eskulturaren aurrean

Sari garrantzitsua da irabazi duzuen, espero al zenuten horrelakorik?

Itziar: Ez. Bueno, aurkeztu bazara beti dezu aukera bat, baina itxaropen haundirik ez genuen. Gainera, oso lan onak aurkeztu zirela ikusi genuen. Sariketa nahikoa entzutetsua da eta baziren Bartzelona, Sevilla, Almeria eta hainbat tokitatik etorritako jendea ere ... Izatez, irabazi egin genuela esanaz deitu zigutenerako kasik ahaztua geneukan sariketaren kontua.

Ion Ander: Kontuan hartu behar da ikasleak garena, sariak kriston autoestima subidoia eman digu, baina ez gara zeramika eskultoreak garena sinestera iritsi. Eta egia esan dimentsio haunditako lan bat egitea zen gure benetako helburua, ez saria irabaztea.

I: Aspalditik geunden honelako lan bat egiteko gogoarekin, baina ez genekien nondik hasi. Sariketak falta zitzaiguna eskeintzen zigun, fetxa bat eta muga batzuk. Gaiak, udaberria, nahikoa zabala izan arren, abiapuntu bezala balio zigun pentsatzen hasteko, eta kanporako eskultura bat egin beharrak erresistentzia eta dimentsio jakin batzuk eskatzen zituen. Hala, geure lana sariketaren baldintzetara moldatu eta bertara aurkeztea erabaki genuen.

Azalduko al diguzue pixkat zeuen lana?

IA: Buztinezko laurehundik gora esfera dira, ‘colado a medias’ eginak eta zortzi tamaina desberdinetakoak. Beiratu kapa bat dute, zementuz beteak daude, eta altzairu herdoilgaitzezko barilen bidez lotzen zaizkie 2’40 metroko altuera duen beira zuntzezko erdiko gorputz bati, hau ere zementuz beteak eta base batekin asentatua.

I: Ez da ezerren errepresentazio zehatza. Kaktus bat izan daiteke, landare baten pisziloa, suge-lorea, perretxikuak... edo sorkuntzaren errepresentazio abstraktu soila. Guk bizia, zerbait organikoa, adierazi nahi genuen.

“Hiru hilabete arnasik hartu gabe hontan sartuta”.

Orain Sanz Enean daukate erakusgai pare bat astean, baina gero Villa Mundako parkean jarriko dute, parkeko belardiak duen mendixka moduko batetan, bere kabuz lurrazpitik atera eta eskulturak mendiska bere indarrarekin bultzata sortu duenaren inpresioa eman dezan.

Eta ‘Udaberriko sorkuntza’ jarri diogu izenburua, bai gaiari egokitzen zaiolako eta baita udaberrian sortu genuelako ere.

IA: Udaberriarekin hasi ginen lanean eta udaberriarekin bukatu genuen. Udaberriko abentura bat izan da

Hau izan da lan irabazlea.

istorio guzti hau, eta bukaera ezin hobearekin.

■ Nolakoa izan da sortze prozesua?.

IA: Gogorra, nahikoa prozesu konplikatu behar baitute esferak. Lehenengo eskaiolazko moldeak egin behar dira, gero buztina gainetik bota eta esfera erdiak eskaiolaz hustu, enkolatua egin eta labean sartu 1.150 gradutan... Beiratua egiteko ere bigarren aldiz pasa behar da labetik. Esferak zementuz bete, loturak soldatu... Hiru hilabete egon gara arnasik hartu gabe hontan sartuta.

I: Denbora aldetik ezezik diru aldetik ere dexenteko kostua suposatzen du horrelako lan batek. Inguruko lantegietako hondakinen artean ibili gara material bila, baina topatzen ez genituenak erosi egin behar. Poliespana erosten hustu zaizkigu gure diru danak.

“Beti batera gabil-tzanez elkarrekin egitea errezena”.


IA: Hala ere inbertsio ona izan da, oso ondo amortizatutakoa.

I: Gero, jende askoren laguntza ere izan degu. Bat kotxea hartu eta materiala bilatzen, bestea presentatu genuen dokumenturako argazkiak ateratzen, irakasleak... Fakultatean tailerra utzi digute, eta horrek ere gauzak asko erraztu dizkigu, askotan tokia eta labeak lortzea izaten baita lanik zailena.

■ Ekipoan egin duzue lana, nola izan da hori?

I: Biok Arte Ederretako 3. mailan gaude, eskulturaren adarrean, eta proiektu bat aurkeztu behar genuen. Karrera hasi genuenetik elkarrekin irteten gara, eta egun osoa elkarrekin pasatzen degunez, norberak egin asmo zuenaz hitzegiten hasi eta bukaerarako ez genekien ideia bakoitza norena zen. Errezena elkarrekin egitea izango zela iruditu zitzaigun.

IA: Honela pentsatzeko orduan beti dituzu bi iritzi kontrastatzeko, eta lan



fisikoa egiteko orduan ere askotan bi pertsona behar dira. Gainera, primeran konpondu gara. Aurrera begira ez daukagu oraindik proiektu zehatzik, baina garbi daukagu hurrengo behintzat elkarrekin egingo degula.

■ Zer suposatzen du sari hau irabazi izanak, ateak irekitzeko balio dezake ezta?

I: Behinik-behin hurrengo proiekturako beharko ditugun materialak erosteko eta zelebrazio modura bidaia bat egiteko dirua. Gero, kurrikulumerako ere ondo etorriko da, eta agian zeramika konbentzioak eta halako ikastaroetara sartzeko lehen genituenak baino erreztasun handiagoak izan ditzakegu.

■ Herrian nolako ohiartzuna izan du notiziak?

IA: Jendeak zoriondu gaitu kalean. Gehienak nahiko harrituta. Jende gutxi zekin zertan genbiltzan, eta egun batetik bestera egunkarietan atera geranean, ba jendea seko harrituta gelditu da.

■ Etorriko al dira gehiago?

IA: Espero.

I: Lana egingo degu, sariak etortzen badira bien eta bestela tambien.

◀ ANTOKA AGIRRE

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

IHINTZA
taberna

Tel: 860472
C/Itza y Gasset, 3



Erribera kalea


Tel. 861523



ILEAPAINDEGIA

FRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760





GRAND

Udalekuak, harremane- tareko aukera paregabea

Uztailan zehar 200
haur baino gehiagok
izango dute Zumaia-ko
udalekuaz gozatzeko
aukera

*Udalekuak gutxigorabehera
zer diren guztiok dakigu,
baina guk gertuagotik
ezagutu nahi izan dugu
Zumaia-ko Udalak urtero
antolatzen duena. Uztailean
mordoxka bat haurrek
udaraz modu berezi batean
gozatzeko aukera izaten, eta
era berean, Zumaia-ko
hainbat gaztek poltsikoa
betetzeko aukera dute
begirale gisa lan eginez.
Xehetasun guztiak hobeto
ezagutzeko, hauetako lau
begiralerekin hitz egin dugu.*



Alicia, Maite, Idoia eta Bakartxo aurtan Zumaia-ko udalekuan lan egingo duten hemeretzi begiraleetako lau dira. Beraientzat ez da esperientzia berria haurrekin lan egitea, urte batzuk dira ta kontu honetan sartu zirela. "Udalekuak haurrei udaraz gozatzeko eta batez ere beren adinekoekin harremanak izateko aukera ematen zaie. Jolastea, ongi pasatzea eta lagunak egitea da, azken finean, udalekuek proposatzen dutena". Izango dira, noski, haurrak gainetik kentzeagatik udalekura bidaltzen duen gurasorik, "baina orokorrean ez da hori gurasoek bilatzen dutena".

Udalekuak zerikusi gutxi du Ludotekarekin. Bakartxok azaltzen duen bezala, "ludoteka urte osoan zehar dago zabaldu. Udalekua uztailean bakarrik zabaltzen da, eta egunean zehar egin beharreko gauzak askoz ere egitaratuagoak daude. Ludotekan ez dago eguneroko egitarau zehatzik". Udalekuetan, eguraldiak uzten duenean behintzat, hondartzara edo

inguruko lekuetara joaten dira haurrekin, kanpoan jolas dezaten. Hori bai, onartzen dute ez dutela apenas beste herrietara joateko aukerarik, "nahiz eta aurtan Getarira joateko baimena lortu dugun", gogoratu du Idoiak.

Haurrak bi multzo handitan banatzen dituzte, adinaren arabera. Hiru urtetik seira bitartekoek txikien taldea osatzen dute; 12 bitartekoek handiena. Aurtan 200dik gora izango dira, eta guztira 19 begiralek izango dute maneiatzeko ardura (gehi praktikan daudenak). Udalekua goizez egoten da zabalik, 9.30etatik 12.30etara.

Eguraldi ona egiten badu, hondartzara eta mendira ateratzen dira, baina jolas handiak ere antolatzen dituzte. Maitek azaldu digu aste batean zer egiten duten, gutxigorabehera: "Hondartzara eta mendira ahal dugunean joaten gara. Baina beti prestatu behar dituzu jolasak. Txikienekin ez da erraza izaten, eta askotan eurek jolasten



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazio-ko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

dute. Besteekin jolas handiak antolatzen saiatzen gara. Adibidez, Zumaia hobeto ezagutzea helburu dutenak. Eguraldi txarra egiten badu, orduan Zumea ikastolan egoten gara. Hor eskulanak eta barruko jolasak egiten dituzte. Egia esan, hiru ordutan ezin da gauza handirik egin”.

Haur gehienak zumaiaarrak badira ere, udara Zumaian pasatzen duten familien haurrak ere badira tartean. Haur gehienek lehen hamabostaldia aukeratzen omen dute. Aliciak dioenez, “haurrek hamabostaldi baterako edo hilabete osorako eman dezakete izena, baina normalean lehen hamabostaldia aukeratzen dute gehienek, gurasoak oporretara doazenean haurrak eramaten dituztelako”. Hau dela eta, bigarren hamabostaldian hamabi begirale baino ez dira izango.

Hainbeste haurren artean, inoiz arazo berezirik izan duten galdetu diegu. Inoiz ez omen dute inor etxera bidali behar izan, “hori bai, beti daude atenzio berezia behar duten haurrak, edo bihurri samarrak direnak, baina orokorrean oso ondo portatzen dira”.

Haurrek, Zumaian behintzat, badute udara nola gozatu!

◀ GORKA ZABALETA



Alicia,
Maite, Idoia
eta
Bakartxo,
udale-
kuetako
begiraleak

Zer behar da begirale izateko?

Gaur egun, gazte askorentzat lehen aldiz lan egiteko aukera ona izaten dira udalekuak. Non nahi aurki daitezke udaleku hauek, irekiak zein itxiak, eta urtero milaka dira behar izaten diren begiraleak. Baina zer behar da begirale izateko? Lehenik eta behin, titulua. Eta ez pentsa astebetean ateratzen denik. Ikasturte oso bat egin behar da, eta gehienetan asteburuak sakrifikatu beharra dago. Zer ikasi behar da begirale on bat izateko? Batzuk pentsatuko duzue haurrak egunean hiru orduz zaintzeko ez dela gauza handirik jakin behar, baina begirale titulua lortzeko behintzat, denetik jakin behar da: psikologia, ingurugiroa, jolasak disziplina... Baina titulua nahikoa al da begirale ona izateko? Haurrengana ez dago titulua eskuan duzula joaterik. Pazientzia behar da, umeein bat egiteko gaitasuna, era berean ume bihurtu eta dena kontrolpean mantentzeko ahalmena...ez dela, dirudien bezain erraza.

TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2

Tel. 862373

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

Errekuperazioak
Talde mugatu eta
homogeneoak

Uztaila edo/eta abuztua

Ingurugiroa ogibide

Udal Elkarteak ingurugiro tailerra sortu zuen duela bi urte, etorkiuneko apustua eginez.

Tailer e-Eskolaz hitz egiten digutenean, beti tailer tradizionalak etortzen zaizkigu burura: sukaldaritza, igeltzeritza, ...baina duela bi urte Urola Kosta Udal Elkarteak urrats berri bat ematea erabaki zuen, etorkizunerako apustua egin behar zela pentsatu zuten. Hor jaio zen Ingurugiro Tailer Eskola.

- Eta zu, zertan zabilta orain?
- Ba, Urola Kosta Udal Elkarteko Ingurugiro Tailerrean nago.
- Nola?
- Ba hori, ingurugiro ikastaro bat egiten ari naiz, gero esparru horretan lana bilatu ahal izateko.
- Hori zer da, ekologisten kontu bat?
- ...

Ingurugiro eskolako hamar ikasleek ederki ezagutzen dituzte horrelako galdeketak. Izan ere, oso zaila baitzen hasiera batean -baita oraindik ere- ingurugiro eskola tailer bat zehazki zer den azaltzea. Ingurugiroa mugimendu ekologistarekin lotzen dugu, eta ez

dute zertan berdina izan behar. Pertsona bat aditua izan daiteke ingurugiro gaietan baina bat ez etorri mugimendu ekologistarekin -edo bai-. Beraz, gauzak nahastu gabe.

Bigarren arazoa da, nola azaldu ingurugiroa ogibide bihur daitekeela. Orain arte, enpresa gehienek oztopo gisa hartu dute ingurugiroa. Nola azaldu zure aitari ingurugiroa lanpostuak sortzeko bide berri bat izan daitekeela? Ez da erraza, baina garaiak aldatzen ari dira.

Hirugarren galdera: Baina zuk ez al duzu Arte Ederretako karrera egin? Zer demontre egiten duzu ingurugiroan sartuta? Galdera zaila hori ere. Ingurugiro berez zientziaren adar bat dela argi dago, eta gaur egun Ingurugiro lizentziatura ere badago zenbait unibertsitatetan, baina hain zabala izan daiteke ingurugiroaren kontzeptua, edonork izan dezakeela lekua. Are gehiago, Udal Elkarteak antolatu zuen Ingurugiro Tailerrean.

Ingurugiro tailer hau goi mailako ikasketak zituzten gazteei zuzen du zen. Antolatzaileen helburua, hasiera-hasieratik, disziplina anitzeko taldea osatzea zen, hau da, lizentziatura ezberdinetako lagunak biltzea. Horrela, aukeraturiko hamar lagunaren artean denetarik zegoen. Zer lortu nahi zen talde horrekin? Eskola Tailer guztiek bezala, honek ere inbideratzea zuen helburu, behin programa amaituta -bi urtekoa- hamar lagunek lana izatea.

Ez da erronka makala. Programa honen finantziazioa posible izan da administrazio ezberdinei esker. Alde batetik, Udal Elkartea dago, ekimenaren bultzatzailea.

Bestetik, INEMek berak ere parte hartu du. Eta ezin da ahaztu programa honek Europar Batasunetik diru laguntza jaso duela, besteak beste.

Lau hilabete eskas amaitzeko.

Lau hilabete baino ez dira gelditzen programak dituen bi urteak osatzeko, baina lanak eman ditu jadanik bere fruituak. Lau lagun praktikak egiten ari dira jadanik enpresa ezberdinetan, beste batek lanpostu bat lortu eta programa utzi zuen, eta beste bostak enpresa bat sortzeko bidean dira. Boskote honek oraingoz ARAZI izena duen elkartea osatu du, baina programa amaitu bezain laister enpresa bilakatzeko asmoa dute. Jadanik hainbat lan egin dituzte gure eskualdean. Eskolekin ingurugiro heziketa kanpaina ezberdinak burutu dituzte (zaborren gestioa, Zumaia garbia...), baita arrakasta handia izan zuten Zumaiaren 650. urteurreneko ekitaldiak ere: Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat ere egin dituzte zenbait lan, adibidez, Pagoetako erletxean; eta Kutxa ere bere bezero izan dute. Talde honek proiektu asko ditu, baina badakite erronka handia dutela aurrean. Ingurugiroa lanbide iturri izatea ez da oraindik ulertzen gure gizartean, baina pentsakera hori aldatzearen alde lan egiteko prest daude, ingurugiroa ogibide izan dadin.

◀ GORKA ZABALETA



ilarfi
kontzertuz eta musikaz blai

Alai auzategia, 2 Tel 143324

ITZURUN
K
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758



Iñigo Martin

Ordua iristen danian
ikus behar,
baino badaude
satisfazioa lortzeko
beste bide batzuk.
Gainera
seguridadea falta du oraindik
pastila horrek

"biagra" behar erabiliko bazenu al zenuke?



Jesus Goikoetxea

Ez,
aldau biharrekua
pareja da,
.....ahal bada
hamabost
egunetik behin



Josu Uranga

Bihar baldin badezu,
dudarik ez!



Amaia Aldalur

Bai, kuestioa arazoari
aurre egitea da



Mari Karmen Aristi

Saiatuko ginake
beste metodo
batzuk bilatzen,
biagra azken aukera izango
litzateke



Antonio Blasco

Usten det ezetz,
baina egunen batian
arazua etortzen bada
planteatuko det



Bittor Olaizola

Bai,
dudarik gabe.
Gauza garrantzitsuagorik
ba al dago ba?

Islepiandegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingelesa . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es

 **Loredenda JEMAR**

**LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK**

Erribera, 1 Tel. 860375

Uxua Gainza, Zumaiaiko Arraun Taldeko prestatzaile fisikoa

“Sikologia aldetik lan gehiago egin beharko litzateke arraunean”

IVEF-eko ikasketak amaitzear dagoen 23 urteko neska gazte hau da denboraldi honetan Zumaiaiko Arraun Taldearen prestatzaile fisikoa. Berak aitortu duen bezala, hasiera batean asko kostatu zitzaion baiezkua ematea, baina orain oso gustora dagoela azaldu du. “Hurrengo urteetan gainera taldean jarraitzea gustatuko litzaidake”.

■ Nolatan hasi zara arraun taldeko prestatzaile fisiko lanetan?

Gabonetan telefonoz deitu ninduten arraun taldeko prestatzaile fisiko bat behar zutela esanez, aurrez zebilenak ezin zuelako jarraitu. Jakin zuten IVEFeko karrera egiten ari nintzela eta komentatu egin zidaten. Hasiera batean, pixkat atzera egin nuen, baina Josu Arana aurreko prestatzailearekin hitzegin ondoren animatu nintzen eta hor nabil.

■ Zer moduz hartu zaituzte talde barnean?

Oso ondo hartu naute, gainera arraun-larien artean oso giro jatorra dute. Gainera jakinda ni ere berria naizela, saiatu dira hasiera-hasieratik niri ahal duten guztian laguntzen. Hasieran normala den bezala pixkat “kortatzen” zara baina berehala ematen diozu buelta.

■ Eta orain arte, zer nolako esperientzia?

Oso ona. Pila bat ari naiz ikasten. Nik nere aldetik ematen diedanaz aparte, beraiek ere beren aldetik asko ematen didate, batez ere arraun mundua barnetik nolakoa den azaltzen asko lagundu didate.

■ Lehendik inolako esperientziarik bazenuen arraunean?

Ez. Karrerako lan bat egin behar nuela eta, arraunarekin lehen hartuemanan izan nuen baina oso azaletik izan zen. Arraun munduan, benetan, orain sartu naiz.

■ Hainbeste mutilen artean, neska izateak arazorik eman al dizu?

Ez, hobeto eta dena. Honbre, hasiera batean beti da pixkat txokantea ezagutzen ez duzun horrelako mutil

kuadrilla handi baten artean egotea. Baina arazorik neska izateagatik batere ez dut izan, alderantziz.

■ Zer nolako maila fisikoa du Zumaiaiko Arraun Taldeak?

Denboraldi hasieratik argi ikusten da positiboki ari dela eboluzionatzen kuadrilla, baina oraindik denboraldia hasi bakarrik egin da. Uztailean egingo dugun lana oso garrantzitsua izango da; honen arabera ikusiko dugu noraino iritsi gaitzek denboraldi



Jesuskoa
Faletxea



Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIA



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

honetan. Hori bai, ezberdintasun handiak daude batzuen eta besteen artean, batez ere adin aldetik. Ezin diozu adibidez, 18 urteko arraunlari bati 27 urteko beste baten entrenamendu berdina jarri. Alderdi honetan, kontu handiz ibili behar da. Sikologiari garrantzi gutxi ematen zaio eta nire ustez alderdi honek garrantzi izugarria du. Fisikoki oso ondo bazaude eta mentalki gaizki, ez duzu zure onena ematen eta alderantziz, fisikoki hain ondo izan ez eta mentalki fuertexamar, askoz gehiago emango duzu. Niretzat askoz gehiago landu beharko litzateke alde sikologikoa eta zergatik ez, sikologo bat izatea talde bakoitzean komenigarria litzateke.

■ Nola programatzen duzu denboraldia?

Lehendabizi, konpetizioko programa ikusten duzu. Bi ziklotan banatzen da denboraldia: batetik trainerillena eta bestetik traineruena. Bai batean eta bai bestean, estropada garrantzitsuenak zein diren finkatzen duzu eta hoiei begira egiten duzu lan. Hasieran, lurrean egiten da lan gehien: korrika, gehienbat fondo pixkat hartzeko. Gero indarra lortzen joateko pesak egiten hasten dira (bolumena) eta ondoren, intentsitatea hartzeko, uretara jotzen da erritmo pixkat hartzeko (paladetan...). Azkenik, konpetizio garaian, estropadak egiten diren

antzeko entrenamenduak egiten dira, atsedenaldi gehiagorekin etab.

■ Hobetzeko marjenik ikusten diozu taldeari?

Bai, bai, oraindik hobetzeko marjen handia dute bai denboraldi honetan eta baita hurrengoetan ere. Kontuan hartu behar da gainera 20 urte inguruko arraunlari gazte asko dagoela eta hauek jarraitzen badute, gauza politak egin ahal izango dira etorkizunean.

Guk uztaila amaierara ondo iritsi nahi dugu, hor hasten baita euskal liga. Abuztuan, forma mantendu, atsedenaldi ttiki batzuk hartuz; eta irailean, berriz, azken txanparako sasoi betean egon nahi dugu.

■ Esaten den bezain gogorra al da arrauna fisikoki?

Bai, dudarik gabe. Izugarritzko indarra behar da eta egunero-egunero entrenatzen egoteak sakrifizio handia eskatzen du. Sakrifizioa eta gogoa, nola ez. Hala ere azpimarratzekoa da talde barruan dagoen giro ona; honek asko laguntzen du jarraitzeko orduan. Kanpotik erraza da esatea kirol gogorra dela baina orain barruan nagoela, nahiko meritua iruditzen zait denboraldia bukatzearekin, horrek



eskatzen duen lana eta diziplinaren-gatik. Hau arrazoi nahikoa da behar bezala baloratu ahal izateko.

■ Datorren urteetan taldean jarraitzeko asmorik baduzu?

Bai, nire aldetik bai, ez banaute taldetik botatzen behintzat astakeria bat egin dudalako! Ni oso gustora nago. Hasiera batean erantzunkizun handia iruditzen zitzaidan niretzako, herriak ere zure lana hurbilagotik begiratzen du... Baina guzti hau jadanik alde batera utzi dut neurri handi batean. Gainera talde barruan ere asko laguntzen naute eta hau neretzat ere garrantzitsua da. ESperientzia oso ona eta polita da neretzat.

◀ IGOR URANGA

KABI
T. BERN - ZUMAI
Tel. 143379

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Egunekeo menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853

KALARI
J
A
T
E
T
X
E
A
* Eguneroko bazkaria
* Pintxo eta bokatak
* Koadrilentzako menu bereziak
* Kazuelitak eta plater konbinatuak
Erribera kalea, 16
Tel. 862517

KUKUTZ
serigrafia
· kamisetak
· txiskeroak
· paperezko poltsak
Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7

AIZPURUA
LIBRERIA
opariak
Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

J. Arratibel - Irureta San Pedro pala txapelketako bikote irabazlea

Emakumezkoetan Gabarain Ahizpak suertatu dira txapeldun

Amaitu da 1998. urteko IV. San Pedro Saria Pala Txapelketa. Ekainaren 26an jokatu ziren azken neurketak, eta bikote txapeldunak, J.Arratibel-Irureta San Pedroko fasean, Gabarain Ahizpak emakumezkoetan eta Unanue-Unanue San Pedrinen gertatu dira.

Ikusle asko gerturatu zen Odieta frontoira pala txapelketako finalak

ikustera. Lehendabizi, San Pedro ligaxkako hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu zen. Aurrez-aurre, I.Arratibel-Etxabe eta Elustondo-X.Uranga bikoteak izan ziren. Azken honek ezin izan zuen azken partidu hau jokatu eta bere orde, Pello Carballo aritu zen. Neurketa hau, Elustondo eta P.Carballo hasiera-hasieratik dominatu zuten eta azkenean beren arerioak markagailuan hurbildu ziren arren, beraientzako izan zen garaipena. Azken emaitza, 30-27.

Ondoren, San Pedrineko finala jokatu zen. Unanue-Unanueaita-semeak erraz gailendu zitzaizkien Zendoia eta Azkunerri. Irabazleak ez zuten oztopo gehiegirik aurkitu eta uste baino errezago nagusitu ziren, amaieran 14 tantutako aldea lortuz(30-16).

Emakumezkoen finala aldiz, oso gogorra izan zen. Iazko txapeldunak, Egaña eta Aizpurua zumaiaarrak ezin izan zuten garaipena errepikatu Gabarain Ahizpak Aizarnazabeleko bikote gaztearen aurrean. Norghegiagoka luzea izan zen eta azkenean Aizarnazabalekoek irabazi zuten 30-28eko emaitzarekin.



Bukatzeko, San Pedroko gizonezkoen final nagusia jokatu zuten Ostolaza Anaia eta J.Arratibel-Irureta bikoteek. Azken bikote hau zen favoritoa txapela eskuratzeko eta ez zuten hutsik egin. Ostolazatarrak bigarren urtez jarraian finalean izan dira eta oraingo honetan ere ezin izan dute garaipena poltsikoratu. Partiduko azken txanpararte berdintasuna izan zen markagailuan, baina bukaeran, J.Arratibel eta Iruretak tantu batzuetako aldea lortu eta norghegiagoka beren alde jartzea lortu zuten. Azken emaitza, 30-24.

Final guztiak amaitu ondoren, sari banaketari ekin zitzaion. Bertan, gizonezkoen artean Joseba Arratibel oikiarrak jaso zuen jokalaria onenaren saria; emakumezkoetan berriz, Olatz Gabarain Aizarnazabaleko atzelaria-rentzat izan zen errekonozimendu hori. **IGOR URANGA**



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



Tel. 143278

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAILA

ILE APAINDEGIA



Etkezarreta, 19

Tel. 862342



Paperdenda

Aldizkariak

Fotokopiak

Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7

Tel. 143191



Itxas-Gain hirugarren Espainiako Ibaietako Kopan.

Arrakasta berri bat lortu dute Itxas Gain taldeko kirolariek. Oraingo honetan Duero Ibaian jokaturako Espainiako Kopako lehenengo proban hirugarren tokia eskuratu du taldekako sailkapen orokorrean. Emakumezkoetan, lehenengo izan ziren, gizonezkoetan zortzigarren eta guztira hirugarren leku horretan geratu ziren. Lasterketa horretan guztira estatu osoko 57 taldek hartu zuten parte. Itxas Gain talde osoaren lana aipagarria izan zen, baina emaitza batzuk azpimarratzekoetan, Ane Galarragaren garaipena aipatu behar kadete K-1 mailan; maila berean baina K-2 modalitatean, Batirtze Letamendia eta Maite Garcaren bigarren postua eta kadetetako K-2an baina mutiletan, Juan Mari Azpillaga eta Imanol Atorrasagastik lortutako beste bigarren postu bat ere nabarmendu beharra dago.

Aulki Mugikorreko estropada.

Uztailaren 5ean aulki mugikorreko estropada bat ikusteko aukera izan zen Zumaian. Normalean aulki finkoetako estropadak ikustera ohituta dago zaletua, are gehiago hemen, Zumaian. Baina egun horretan beste era bateko arraun mota bat ere badagoela azaldu zuten partehartzaileek. Gainera, Aita

Mari Arraun Taldean gero eta arraunlari gehiago daude modalitate hau praktikatzeko jarri direnak, emaitza onekin gainera.



Karate Txapelketa

San Pedrotako jaietan Karate Txapelketa bat ikusteko aukera izan zen Udal Polikiroldegian. Bertan, bost urtetik hogei urte bitarteko 60 bat gaztek hartu zuten parte. Trintxerpe, Orereta, Zarautz eta jakina, Zumaia Satori-Mikkyo taldeko ordezkariak izan ziren konpetitzen.



Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

KONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001

BALEIKE

1998ko uztaila. 48. zenb.

ZINEA



El gran Lebowski (1998)

Zuz: Joel Coen

Akt: Jeff Bridges, John Goodman, John Turturro

Coen anaiak bahiketei gusto hartu diotela dirudi. Orain bi urteko *Fargo* arrakastatsuan, kotxe saltzaile batek bere emaztea bahitzeko agindua ematen bazuen, oraingo honetan Lebowski haundiaren emaztea bahitzen dute, edo hala dirudi behintzat. Kasua argitzen Jeff Lebowski saiatuko da. Abizen berbera badute ere, bi Lebowskiak ez dira bata bestearen ezer ez. Lebowski haundia, Los Angeles hiriko aberats bat da, Jeff Lebowski aldiz, oraindik ere hippien garaian bizi den alperrontzi bat. Bere ardurak marihuana erretzea, boloetan jolastea eta alfonbra bat berreskuratzea dira. Gogoz kontra bahiketa honetaz arduratuko da, eta halabeharrez hiriko zoro eta paranoiko guztiak aurkituko ditu.

El gran Lebowski, Coendarren azken filmea da. *Fargo*-rekin elkar puntu bat badu ere, bahiketa, bi filmeak guztiz ezberdinak dira. *Fargo* ikutu komikoak dituen filme poliziako bat bada, *El gran Lebowski*, aldiz, zine beltza eta komedia absurdoaren nahasketa bikain bat da. Aipatzekoa da aktoreen lana. Jeff Bridges, Jeff Lebowskiaren paperean izugarri ondo dago (agian *El rey pescador*-etik egin duen antzezlanik onenean) eta bere belaunaldiko aktorerik onena dela demostratzen digu. John Goodman, aldiz, Vietnameko beterano batena egiten ezin hobeto dago. Bi hauekin batera, zine independentea ondo ezagutzen duten John Turturro, Steve Buscemi eta Julianne Moore aurki ditzazkegu, eta baita ere Sam Elliott eta Ben Gazzara beteranoak.

Hitz gutxitan, filme barregarria, umore absurdo ugari duena eta inoiz ikusi den detektiberik atipikoenaz gozatzeko aukera ematen diguna. Filme honekin Coen anaiak ratxan jarraitzen dute

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Oherako hitzak

Pako Aristi

Gaztelaraz

Lista de locos y otros alfabetos

Bernardo Atxaga

Vidas para leerlas

Gillermo Cabrera Infante

El hijo de Rosemary

Ira Levin

Amantes y enemigos

Rosa Montero

Margarita, está linda la mar

Sergio Ramirez

Haurrak/Gaztetxoak

Oiloa urpean

Manu Lopez Gaseni

Kanibalaren kaiolan

Xabier Mendiguren

Mundu galdua

Arthur Conan Doyle

Mari Joseri zergatik deitzen diote

Joxe Mari?

Seve Calleja

Eguzkiren etxea

Felipe Juaristi

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

uztaila

ZUMAIKO XI ARTE IHARDU-NALDIK

Erakusketak, tailerrak, zinema emanaldiak. **Gaia:** ikusentzutekoa

► Uztailaren 1etik, 30era,
Jon Zabaleta margolariaren erakusketa

Foronda kultur etxean

GRABATU ERAKUSKETA

Alfredo Puelles artista Debarraren grabatu kalkografikoak

► Uztailaren

Ilargi tabernan

KARTEL LEHIAKETA

"Udako jaiak 98"
aurkezteko epea:

► Uztailaren 15a

Foronda kultur etxean

GOZATEGI TALDEA

► Uztailaren 18an larunbata, 23.00tan,
Eusebio Gurrutxaga plazan

KIÑU TALDEAREKIN DANTZALDIA

► Uztailaren 19an, igandea. 19.30etan
hasita.

Eusebio Gurrutxaga plazan

"BONB EROAK" HAURRENTZAT FESTA

"Hankagorri" taldeaekin.

► Uztailaren 24an, ostirala. Arratsaldeko 19.00etan.

DANTZALDIA ATARRABI TALDEAREKIN

► Uztailaren 25ean, larunbata. 19.30tan.
Eusebio Gurrutxaga plazan

KALE ANTZERKIA "TRAPU ZAHARRA" TALDEAREKIN

"la averia" antzezlan

► Uztailaren 26an 18.30etan.

DANTZA IKUSKIZUN BEREZIA

"Elai-alai" Euskal dantza taldea eta
"Nayarita" Mexicoko dantza taldeen ekitaldia

► Uztailaren 30ean osteguna 22.00etan

Zuloaga museoaren ondoan

ZUMAIKO HISTORIA LIBURUAREN AURKEZPENA

► Uztailaren 29an arratsaldeko 19.00etan

abuztua

UDAKO JAIK

"ZUMAIA 98" NAZIOARTEKO MUSIKA JAIALDIAREN HASIERA.

Ikastaroak, eta egunero kontzertuak
► Abuztuaren 1etik 11ra, egunero 22.30tan.

Maria eta Jose aretoan

1. larunbata: Ainhoa Arteta
sopranoa, eta Alejandro Zabala
pianoan

2. igandea: Itoiz taldearen musika:
Arcadius String Quartet

4. astearte: Patxi Aizpiri pianoan

5. asteazkena: Musikaldiko irakasleen
kontzertua

6. osteguna: Ganbara musikako 1go
laboratorioa (Mari kalean)

7. ostirala: Mikel Laboa

8. larunbata: Piazzola-ri omenaldia:
tangoak eta olerkiak

9. igandea: Ganbara musikako 2.
laboratorioa

10. astelehena: Ganbara musikako
kontzertua

12. asteazkena: Parrokian

- Orkestra eta musikaldiko lehia-
ketako 1go saria.

- **San Pedro Abesbatza** eta Orkestra:
La coronación de Mozart.

SAN BARTOLOME JAIK OIKIAN

► Abuztuaren 21etik 29ra

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Kultur etxean udako ordutegia jarri da martxan

Helduentzat

► Astegunetan, Goizeko 10 etatik

14etara. Arratsaldetan itxita

Larunbatetan itxita

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA



BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323



Paol hippyak

1- Argudioa

Zumaia txukuntzen ari dira, han eta hemen ikus daitezke kale hornidura berriak. Hornidura hauek, beste guztiek bezala, badute beren garrantzia Zumaiaren irudian, bertakook eskaintzen dugun irudian, kanpora eskaintzen dugun irudian. Arkitekturaren zati bat izanik, kaleak erosoago egiteko erabili diren "gailu" hauek, modaren astindua jasan izan dute garai bakoitzean. Hiri handitan hauen irudia bereziki zaintzen da, hiriak kanpotarrei eta, noski, bertakoei ere eskaini nahi dien izaera goraipatzeko. Bartzelona modernis-motik gaur egungo diseinura doala esaten da, Madrilek klasiko itxura ote duen, Donostiak frantses itxura... Topikoak.

Nik partikularki estetika funtzionala dut gustukoen. Aldez aurretik azaltzen dut nire ikuspuntua.

2- Paol loredunak

Hiri handi batzuekin konparatzeko asmorik ez badut ere, aipagarri iruditzen zaizkit moilan jarri ditugun paol loredun horiek.

Imajina dezaket katalogo bitartez aukeratu direla, antzekoak beste nonbait ikusiak baititut. Narrondoko ibaiartean jarritakoak, urrutira joan gabe, katalogoz aukeratuak izan badira, gustu handiz aukeratu direla esango nuke. Baina ulertzen ez dudana zera da, nondik azaldu zaizkigun ia 30 kg izan ditzaketen lorontzi pare eder horiek. "birtute handiko diseinua" edota nolabaiteko "ausardia esperimental" bezala deskribatuko nituzke. Besterik gabe, originalak dira.

3- Adibideak

Adibide loratuak bilatzen hasita, loratuena Donostia aldean aurkitu dut. Bertan, paol desberdinek antzekotasuna badute, bai kolorean (txuriak gehienak) eta bai erabilitako irudietan. Estilo klasikoa erabiliz, lore eta landareen irudiak erabiltzen dira, paolari txispa pixka bat emateko. Hau gutxi balitz, paolak lorategietan jartzen badituzte, ba metafora biribildu egiten da, fantasia hutsa bihurtuz. Lore batek argia ematen du. Sustraiak kableak izango lirakeke eta gauzez esna egongo lirakeke. Paregabea I.

4- Gogoeta

Paol loratutik kaleargi loredunera badago aldea. Batek ez du sustrairik, azaltzen duen irudia metafora bat delako; besteak, aldiz, sustraiak lurretik 3,10 metrora ditu. Saskiba-loiko saskien antzera. Noski, hauek ez dute sustrai beharrik. Surrealista batek egin izan balu agian arte kontsideratuko genuke.

— "Argindarraren eta naturaren interpretazio berri bat".

Funtzionala izanik, logika erabilita neure buruari galdetu diot gailu bat edertzeko loreak inoiz jarri ote zaizkion adibidez, auto bati.

— Bueno, jarri jarri, sustrai eta guzti, agian "roulotte" batekin, baina loreak? 70eko hamarkadako hippyen autoak ikusita... ba agian pintatuta autoaren kanpoaldean.

Azkenean, aurkitu dut asetzen nauen irudi bat. Filosofia hippya goraipatzen dute azken finean: "Flower-Power", ingelesez. Lorearen indarra, lorearen argindarra. Paregabea II.

◀ DANIEL CARBALLO OSTOLAZA
ARKITEKTOA



SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416



TALA-MENDI
DEKORAZIOA

* Eskaiola
* Pintura
* Pladur
* Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574



Dutxarik gabeko arranpla *Gaurko gazte askok galdetuko zioten bere buruari zertarako erabiltzen ote ziren garai batean arranplan ikus daitezkeen zementozko piboteak. Argazkiko itsasontziak horien gainean ikusi eta zalantzak argi geratuko dira, ezta? Hala ere, hori ikus daitezkeen langile horiek ere eskertuko lukete gaur egun arranplan jarri berri dizkiguten dutxak, hori ziur!*



JUARISTIK emandako afaria **AIN-HOA GARCIA** eta **MAITANE ATORRASAGASTI** rentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, Telmo Deunekoek Bandera abuztuaren 24ean irabazi zuten Rosilloko urtegiari

Tripa-festa lehiaketa

Adi, adi! Bi pertsonentzako afari eder bat irabaz dezakezu!



Noiz ospatu da aurten Dantzari Eguna?

Asmatzen duzuenon artean San Migeleko TXOKO tabernak emandako afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoian edota Forondan uztea, abuztuaren 30a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082
Faxa: 148124
78 postakutxa

BALEIKE

1998ko uztaila. 48. zenb.

motxian hi!

zein: Maria Isidora Sesma
zer: Musikaria
nola: Marixi



Zer iruditzen zaizu sail honetan ateratzea?
Ez dakit

Oporretara, nora zoaz edo joango zinateke?
Eskandinabiara

Klarineteaz aparte, ze instrumentu gustatzen zaizu?
Perkuzioa

Zerk kentzen dizu logurea?
Gezurrak

Orain artean gertatu zaizun gazarik pozgarriena?
Jende ona ezagutzia

Nola ikusten dezu zeure burua hemendik 10 urtera?
Auskalo! Bihar ez dakit non egongo naizen...

Hil eta gero zer?
Su eman

Bikoteen arteko maitasunean sinisten al dezu?
Ez gehiegi

"El don de los Sesma"-taz hitzegin al daiteke?
Baleike

Nola ikusten duzu Zumaian musikaren mugimendua?
Mugimendua badago, baina gogo gutxi

Zure bizitzako prioridadeak zein dira?
Pertsona izan eta gero gerokuak

Hurrengo mundiala nork irabazi behar du?
Alemaniak

Zer iruditu zaizu, azkenean, sail honetan ateratzea?
Ezjakintasunarekin jarraitzen dut

agurrak

Aupa Baleikebanatzaileak!
Ea noiz botatzen dugun paranda eder bat denok batera. Aupa Maxpildus!
Tapsikologoa?
Badakizue ni naizela.

Mujer de rojo:
Ikusten? akordatu naiz agurra jartzeaz. Aupa gu! zergatik ezizen hori? sexigatik?
Badakizu zein.

Migelito, Migelito... laister haiz Laguardia aldean ardotan ito

Arranz atunak zain gatzabiaztiak, ez gaituk hi bezain arrantzaliak

Ai Rebeka! como te gusta Miel Gose

Martinez jo nahian eta ezinez.

Martinez ER D.N.I. y lo papele del camión!

Joxe Endañeta, Oihanaren mutila, Fraile ederra... hori dek hori tipoa Muebles Endañeta

Uztailaren 7an 26 urte, badakizu tragoaren zain gaude.
ZORIONAK jefe!

Para Pablito y Belmon:
Vaya dos incapaces que ya estais en la era de la menopausia...

Xurruting! Aupa "Los Panchos"
Mamo: Zer moduz faruan lau hanketan?

Joxema: zer gertatu zitzaizun udaltzaingoarekin?
TXINO

Santasoma:
Gaur ere lanian, ez gaitun makalak! eta gaur ere elkarrekin bukatuko al dugu parrandan?
Badakizu nor naizen

Buxkandei. Desio zaitut bihotz bihotzez
Rebeka

EEEEH...! Zer da Buxkandei Uztailak 25ean zer da La Guardia alde hortan.

Zer daaaa EEEEEhhh...!!
Zein da Rebekan zenbakia?

Aupa zuzpertz eta bitartean ez aspertz!
Moxkatel ardozaleak bustana motel, garai hobeak etorriko ote...

Sumofic 1-1 pirri-parra Anperio balón de oro. Hori dek gola!!!

Zer Aita, zure garaian gutxi ikasi zenuela eta orein ikasten hasi?
Pillin. Pillin...
Tu negra.

Iparre: Hiiiiiii...!!
Ein tzak Parre

Manterola:
papeo a sako!!!
Ñam, ñam, ñam...Zakin pareko. Pagatu egn behar!!!

Gartxipielago, Canario!!!
Lorito gutxiol!!!

Aupa Maspildu (Xa)!!
Festetako gorabhera dela eta hurrengo astean psikologoarengana! Guk lagunduko zaitugu!

Hi Txoatxu: noizko dugu tapizatu hori???
EL FELIZ



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g

Tel. 861705

ZALLA
Taberna - Erreategia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 862387



ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:


Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528



DORNUTEGI

SUKALDEKO HALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel. 862051



Sukalderako hornikuntza diseinuak.

Lanen zuzendaritza.

Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.

Kalitate-prezioan parekorik ez.

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu


GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



Urolthermik Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 **ZUMAIA**